

Jupiterren orbitan da *Juno* zunda

Dena NASAk espero bezala atera da: ia bost urteko bidaiaren ondoren, iritsi da Juno zunda Jupiterren orbitara, eta orbitan sartzeko maniobra guztiak arrakastaz bete ditu. Hala, “gas-erraldoitik inoizko gertuen” dagoen zunda bihurtu da *Juno*. Hain zuzen, Jupiterren goihodeietatik 5.000 km-ra baino ez dago, eta hor jarraituko du 20 hilabetez, Jupiterren inguruan orbitatzen, planeta ezagutzeko asmoarekin.


Jupiterren sorrera eta bilakaera aztertzea da [Junoren helburu nagusia](#). Horretarako behar duen energia, bidaiara osoan egin duen bezala, Eguzkitik hartuko du; horrek erabat berezi egiten du misioa, orain arte Jupiterreara egin diren misioetan zundek energia nuklearra erabili baitute. *Junok*, ordea, eguzki-plakak daramatza bere hiru besoetan. Hori bai, orbitan sartzeko, zundaren motorrek 447 kg erregai (hidrazina eta oxidatzailea) erre behar zituzte.

Orbitan sartzeko maniobra ez zen erraza, eta misioa jarraitzen zuten NASAREN kideek txaloka

hartu dituzte dena aurreikusitako moduan atera dela baieztatzen zuten datuak.

Orain, *Juno* prest dago Jupiterren osaera, atmosfera eta magnetosfera ikertzeko datoen hilaibeteetan. Lan hori egiteko, babes berezia jarri behar izan diote zundari, oso baldintza gogorretan aritu beharko baitu. Izan ere, Jupiterrek erradiazio handia igortzen du, eta tresnak izorratzeko arriskua dago. Arrisku hori ahal den neurrian saihesteko, orbita polarra egingo du Junok; zehazki, 37 orbita osatzeko asmoa du.

Jupiterri buruzko informazioa lortzeko, bederatzi tresna daramatza *Junok*; tartean, mikrouhin-erradiometroak, eta infragorriko espektrometro bat hodeiak aztertzeko; partikula energetikoen detektatzailea; eta magnetometro bat. Guztiak jasotako datuek, Jupiterren sorrera ez ezik, Eguzki Sistemarena ere hobeto ezagutzeko aukera emango dutela espero dute misioaren arduradunek. Hurrengo hilabeteetan joango dira horren berri ematen. ●



Juno zunda Jupiterreara iristen (irudikapen artistikoa). ARG.: NASA/JPL.



NASAKO kideak, *Juno* Jupiterren orbitan sartu dela ospatzen. ARG.: NASA/JPL.



Eman hegoak euskarari

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.